


■ Pailazoak ■

Takolo, Pirritx eta Porrotx plisti-plasta

Hondartzara joango dira eta animalia zein lagun pila bat aurkituko dute azken disko eta ikuskizunean

Takolo, Pirritx eta Porrotx



'Plisti-plasta'
Matxinsalto

Ainara Mendiola / Donostia

HONDARTZARA joatea erabaki dute azken diskoan Takolo, Pirritx eta Porrotxek, eta horregatik *Plisti-plasta* izena jarri diote. Aulkiak, toaila eta beste hainbat traste bizkarrean hartuta joan dira eta hainbat lagun aurkituko dituzte: Terexa Markexa, Tarrapatata pirata, olagarroa, karramarroa, euskal lora eta aerobik irakaslea, besteak beste. Takolok hondartzan lasai egoteko asmoa du; ez, ordea, Pirritx eta Porrotxek, bihurrikeak egin

nahi baitituzte. Hainbat abentura biziko dituzte eta altxor baten bila ere ibiliko dira Tarrapatata piratarekin batera. Abentura horiek guztiak hamahiru kanta eta beste hainbeste istorioren bidez azaltzen dituzte diskoan Takolo, Pirritx eta Porrotxek.


Hotz artean izozkia

Aurreko diskoan *Baserrian* ibili ziren pailazoak, eta oraingoan hondartza hartu dute gaitzat, kontrastea egiten duelako antzezten hasten diren garaiarekin eta baita diskoa kaleratzen den garaiarekin ere; haurrek atsegin dutelako ere bai. «Hondartzaren gaia freskoa iruditzen zitzaigun, eta, negu partean hasten garenez ikuskizun berria aurkezten, nahiko kontrastekoa. Iruditzen zitzaigun batetik gai fresko bat, negu partearekin kontraste egingo zue-na eta gero umeei asko gustatzen zaiena», esan du Jose Mari Agirretxek (Porrotx).

Takolo, Pirritx eta Porrotxek abentura pila bat biziko dituzte hondartzan, baina zuzenean ikusten dituzten haurrek ere izango dute par-

te hartzeko aukera, euskal aerobika egiten jarriko baitituzte *Bugi-bugi* abestiarekin. Gainera, banderen koloreek zertarako balio duten eta beste hainbat gauza ikasi ahal izango dituzte —disko-ekin ere bai—, nahiz helburu nagusia «haurrek eta helduek ondo pasatzea» den, Jose Mari Agirretxeren arabera.

Kolaboratzaile ugari izan dituzte pailazoek azken diskoan: Iñaki eta Eduardo Salvador, Joseba Tapia, Ordi-ziako Musika Eskolako Haurrak...



EDURNE KOCH

Takolo, Pirritx eta Porrotx hondartzara joango dira ikuskizun berrian.

Ikuskizunarekin pozik oraingoz


DAGOENEN badago aukera Takolo, Pirritx eta Porrotx zuzenean ikusteko eta entzuteko, hasiak baitira emanaldiak eskaintzen. Joan den larunbatean Eskoriatzan egin zuten diskoaren zuzeneko aurkezpena, eta badirudi haurren gogokoa izan zela. «Eskoriatzakoa gehiegizkoa izan

zen, oso ondo joan zen; 800 sarrera zeuden prestatuta eta milatik gora saldu ziren. Harrera majoa izan zen eta gustura gelditu ginen», dio Agirretxek. Erabakigarria izaten da lehen emanaldia pailazoentzat, ikuskizun horrekin eman behar baitute urte osoa, eta tentsioan izaten

dira ume zein helduen gustukoa den jakin arte: «Lehen aurkezpena egiten duzunean urduri egoten zara, jendeak nola erantzungo duen ikusteko zain». Eskoriatzan izan ostean, Euskal Herriko txoko gehienetan eskainiko dute *Plisti-plasta* ikuskizuna: abenduaren 13an Donezteben,

eta ondoren Bilbon, Eibarren, Usurbilen, Zizur Nagusian, Ordizian, Azkoitian, Durangon, Ondarroan...

Durangoko azokan erakusmahai izango dute Takolo, Pirritx eta Porrotxek, eta bihurrikeriaren bat egiten ibiliko dira han, baita musuak eta sinadurak banatzen ere.



Nafarroako Gobernuaren argitalpenak

Navarra por mil caminos

Javier Pagola Lorente

El parque natural de Urbasa y Andía

Luis Azpilicueta-José María Domench

Baztango Kontuak

Mariano Izeta Elizalde

Nafarroan zehar. Euskararen ibilbidea

Orreaga Ibarra. Patxi Gallego

Areso eta Leitzako hizkerak

Mikel Olano Iruña

Goizueta eta Aranok hizkerak

Juanjo Zubiri. Patziku Perurena

Vascohablantes y castellanohablantes

en la historia del euskera de Navarra

Xabier Erize Etxegarai

Nafarroako Toponimia eta Mapagintza

55 liburuki argitaratu dira orain arte

Hitz lauuko lanak I

Aita Polikarpo Iraizozkoa

Los caminos de Santiago en Navarra

Román Felones Morrás

publicaciones
gobierno de navarra

argitalpen fondoa

cl Navas de Tolosa, 21. 31002 Pamplona • Tfno. y fax: 948 42 71 23
http://www.cfnavarra.es • e-mail: fpubli01@cfnavarra.es